


KOBAZULOAK ETA ERRIMA ERRATUAK

Xabier Galarreta



Lege-Gordailua: SS-1119/04

Mundua oin azpitik irristatzen sentitzen dut
gaueroko gau etengabean
zu harantzago niri begira indiferentziaz
zulo bat ikusiko bazenu bezala
nire begitartearen ordez
eta utzidazu zuri esaten
dizudan gorrotoak arima bitan banatzen didala
niri
arimarik ez duen honi
beti hitz baten eske belauniko
ibili zen honi
non nago? non zaude?
zure indiferentzia ikus dezaket
baina bukaera da nik
ikusit nahi nukeena
hori ordea debekaturik dago
jainkoak ez baititu bere ahuleziak
agerian utzi nahi
edo beharbada urrikiagatik
—bere buruarekiko sentitzen duenarengatik—
egiten du hori.
Ez dakit beti zer dela-eta
amaitzen dudan sinesten ez dudan
jainko bati buruz hitz egiten
atsoak bezala
errosarioa eskuan...

Zuloz zulo nabil
erorka beti
zizareak jaten
arratekin solasean
zuen etxetik behera
darion ur beltzetatik edaten.
Behin «emaidazue eskua»
oihu egin nuen
eta handik gutxira
euritako bat nuen eskuan.
Orduan, gizaterian
sinesten hasi nintzen
ez dakit zergatik
benetan
ez dakit zergatik
grazia egingo zidan agian
auskalo
finean euritako bat baino ez zen
ez zen beraz nik espero nuen eskua
baina euritakoa ikusteak han
hain patetikoa
hain ezgauza
ez dakit nola esan
halako hunkidura eragin zidan
eta euria gogor hasi zuenean
ez nintzen ausartu
euritakoa ezta irekitzera ere
gainera
garai hartan oraindik ez nekien
euritakoek zertarako balio zuten.
Eta, ez pentsa, baina

gaur egungoetan ere, hortxe-hortxe
lortu dut lezioa ikastea.

Kobazuloak eta errima erratuak
izan ditut aberri urte luzez.
Orain esku-ahurrari begiratzen diodanean
barregura sartzen zait
—hainbeste zimur! hainbeste desio ezkutu!—
«Hobe aspaldian mutu geratu izan banintz»
esan diot nire buruari ispiluaren aurrean.
Eta ispiluak erantzun dit
«hobe aspaldian hire isla neuretzat gorde izan
banu».
Gero, biok batera puskatu egin gara.

“Ongizate” hitz madarikatua
lepo inguruan kiribilkatzen zait
suge pozoitsu eta ankerraren antzera.
“Ongizatea” diot berriro ere,
pozoia eta itomena nire gorputzean zehar
barreiatuz sentitzen ditudan bitartean.
“Sendagile bat!” “Sendagile bat!”
hasten naiz oihuka, zoroa bezala,
eta handik gutxira anbulantzia dator.
Ez, itxoin. Poliziak dira.
Joder....!

Min egiten dute
isilune zenbaitzuek
eta bertan diraute
arrenkura zahar baten modura.

Beti izan naiz drogazale samarra.
Ezin naiz, beraz, nire buruaz
[harrotu];
zuek, ordea, bai zuenaz:
zitalak, zekenak, ankerrak...
harrotu zeuen buruaz!
borreroak, torturatzailleak, militar genozidak,
[gartzela-funtzionario gupigabeak, epaile
koldarrak, iraultzaile odolzaleak...]
harrotu zeuen buruaz!
indiferenteak, puritanoak,
[elkartasuna inoiz inori erakutsi ez
zeniotenak...]
harrotu zeuen buruaz!
Herritar zintzoak, zirtzilak eta purtzilak,
telebista-jaleak, kontsumista sukartiak,
materialista petoak, indartsuenaren alde
[beti agertzen zaretenok]
beti men egiten duzuenok,
inurrien parekook
harrotu, bai, harrotu zeuen buruaz!

Labirinto batean
bizi gara,
eta irteera topatzen dugunerako,
hilda gaude.

Ez, ez da beranduegi.
Sekula ez da beranduegi izan...
inora iritsi behar ez duenarentzat.

Birtutea, birtutea, birtutea...

Nori axola dio birtuteak

[gaurko egunotan?]

A, bai: Bush-i, Saddam-i, Sharon-i, Blair-ri,
Aznar-ri...

eta gure herrian gobernatzen eta

epaitzen gaituzten

arrotzei, noski.

(Beraientzat izan dadila Bakearen Nobela,
barneko harrak eskertuko die eta).

Madriilen ehun bat pertsona
dira
“Ultra-Sur”koen eskuetan
bizia galdu
dutenak.
Eta ehunka (milaka?) gizaseme,
jipoia hartutakoak.
Jakina, hori ez da “kale-indarkeria”.
Jakina, poliziak ez daki ezer horretaz.
Jakina, Fiskal Nagusiak
[“bere harridura erakutsi du”]
halako jazoera lazgarrien berri izan duenean
(eta neurriak hartzeko beharra hasia da aldarrika!).
Jakina, Goi Funtzionariorik ez da hildako eta
jipoitutakoen
senideekin bildu, taloia eskuan.
Eta jakina, Gurekraziak ez ditu
bere zakuan sartu
hildako anonimo horiek;
eta “Skin Taldeek” ematen dituzten
musika-jaialdiei boikota egiteko deirik ere
ez du inork egin,
inpertinente bakarra Muguruza da eta.
Jaun-Andreok: hauxe da PP-ren
(eta neurri handi batean, PSOE-ren)
Espainia.
Ole!!

Gaur, irailaren 11 da.
Denok badakigu
 zer jazo zen
egun latz honetan,
 izan ere ez baita
 ahazteko moduko
 [eguna]:
gaur, irailak dituen 11. egun honetan,
 Salvador Allende hil zuteneko
 kolpe militarren
 30. urteurrena da.
A! Eta New York-en (Alabama)
 dorre biki batzuek
 talka egin omen zuten
 bi objektu hegalariren aurka.

Abeslari ez-solidarioek
atea zabalik daukate beti
komunikabide publikoetan.
Zerbaitengatik izango da,
zerbaitengatik...

Futbola futbola eta futbola, folklorikoak,
soinu latino-txabakanoak, kotilleoak,
informazioaren pinotxo profesionalak,
iragarkiak, katadura txarreko politikeroak,
aktore kaxkarrak, film izugarri txarrak...

Aurrera, jaun-andreok,
sar eta ikus.

Haxe da SP-ko Telebista Publikoa!

Egunen batean
Unibertsoak
aurpegi-aurpegian
egingo digu
leher.

“Orduan,
zergatik
zertarako
ari gara?”

Ezergatik ez.
Ezertarako ez.

(Akaso,
gure desesperoagatik).

Beitu, hortik doa Justiziaren Zigorra.
“Circunspecto” —bota zuen Oso Yogui-k.
Beitu, badirudi kanpora doala,
bi maleta daramatza-eta eskuetan.
Beitu, Hego-Amerikarako txartela
[du atera].
Bai, aurpegia garbitu beharra dago,
noiz-behinka.
“Circunspecto” —bota zuen Oso Yogui-k.

Gaur, ispilu aurrean nengoela,
nire begietara begiratu dut
eta pentsatu dut:
«Beitu, Xabier,
burmuinak zuri begira daude».
Behatua sentitu naiz.

Lehenago
edo
geroago
bizitza
hilik egotearen
desira baino ez da
azkenean.

Beti gaude
zerbaiten hasieran,
zerbaiten esperoan
bizi eta hil egiten garen
bezala

Mendigoizaleak
ez luke
goraino igo behar
izadiaz gozatzeko.
Baina, lurrak deitzen gaitu,
deitu.

Larru-jotzerik onenak:
norberak irudikatzen dituenak.
Gizakia fantasia huts da...

Ezerk ez du garrantzirik,
Geronen memoria historikoa bera
zer da ba “bluff” bat baizik?

Gu ez gara gu,
gutaz daukagun
iritzi okerra
baizik.

Erloju hauek...
Dagoeneko bakar bat ere
ez dabil.
Erloju guztiak hilda daude.

Gu
gu gara Planeta
Gu ez gara gu;
gizakia ez da bera.
Animaliak, iragana, etorkizuna...
Dena da ez dena
zeren den gauza bakarra
gu gara... Planeta da,
ez gu.
Bestelako galdera litzateke:
... eta Planeta...?
zer da?
zer da Planeta?

Zeinen modu aspergarrian
dagoen antolatuta
gure (des)existentzia:
batek partiturak sortu,
beste batek kanilak konpondu,
harako hark bitartean lorategia txukundu...
Ezin izatea denak batera!
Beti sakabanatze irrazional hauxe!
Merkurioaren antzeko gara.

Gorritz idazten ditudan hitz hauek,
jadanik amorrazio guztia aienatuta
daukadanean...

zeren beharrean, premian ote nagoen
esaidazu zuk
panpox

nik ez baitakit zertarako balio didan
zibilizazio zahar/berri, merke/garesti honek.

Hitz gorritz tindatu hauek...

ulertu nahi dituenarentzat
edota are soberbia handiagoaz:
“ulertu ahal dituenarentzat”,

beti aprobetxatu behar da-eta
lagun-hurkoaren lepo gainera
igotzeko

(horretan datza elkartasuna,
ezta?).

Hautsa dabil leku guztietan
gure desafueroaren lekuko
Hautsa da gure bihotza lurperatu duen
elementua
—elementu ederra!—.
Gizaki erotuak eta ni, zu eta guztiok,
zer gara
anaitasun beraren lokarri-mutur
hiper-erabilia baizik?
Udazken honetan
espero dut
erortzea,
berdin dio zein lekutan
noiz arte
zertarako...
Soilik hori espero dut,
nire indiferentziari
nolabaiteko muga
jartzearren.
...Baina, zer diot?
Nolako absurdua den hau?
Kanila itxi
eta hitzei eragotziko diet
ni naizen koitadu hau itotzea.
Zenbat ergelkeria! eta autoerrukia!
eta absurdua absurduaren gainean!
eta nork itxi eta irekiko du
tapa hau
hain burdinazkoa
eta xaflatua izanik?
Nork botako digu egia aurpegira

txu baten erdeinu berberaz?
Nork erosiko digu
guk geuk gerontzat nahi ez genuena?
Bertso okaztagarri hauek
erraiak jartzen dizkirate dantzan.
Zoazte eta erran guztiei
azkenean hil naizela
eta ez zaidala inporta
eta hilda bizirik bezain...
bezain nagoela,
ulertzen badidazu.

Batzuetan —ausaz, beti ere—
poesiak izaten dira
aurpegiko bonatxoak bezalakoak:
bi hatzen artean estutu,
“plof” egin arte.
Balio al dizu zentzu estetiko honek?
Niri zureak ere ez.

Arrenkura, zeinen “chic” den...
Hartaz gehien gustatzen zaidana:
 darion zibilizaziotasuna
—jario bat bezain likuotsua—.
 Nik nire burua ulertzen dut;
 zuk akaso ezin izango duzu
 beste hainbat esan.
Bai, biolento nago.
 Eta zer?
Haragijalea naiz.
Telebistazalea.
 Kultura dut maite.
Interesatzen zait
 nire herria.
 Elkartasuna
 Ongizatea
 Justizia
Inportanteak dira niretzat
 —eta nitaz beti barrez
nigandik despigatzen ez den
 nire itzal zorionekoarentzat—.
 Eta zuretzat?
 “inportanteak” al dira, ere bai?
Hoa pikotara, mesedez.

“Ahots galdua”.

Inoiz idatzi ez nuen
liburu baten izenburu a-topikoa
(horren aurka ezertxo ere ez nik).

Baina nork daki hainbeste ezertaz?
Ukapena bera..., lepoan kiribiltzen zaigunean,
txantxa krudel baten modura...

Filologia, zuretzat. Opari egiten dizut
(bizitza osorako gorrota nazazun).

Hori naiz ni
—eta ez dut tanta bakarra ere edan!—.

“Al natural”.

Nire mistizismo honek
galbidera eramango nau egunen batean
(eta ez litzateke lehen aldia izango, endemas).

Bo! Pikotara ere Aita Santua.

Gizon aspergarri bilakatu baino lehen,
gogoko nuen literatura,
sexua
eta rock & rolla.
Gero, galdu egin nion gustua
bizitzari
eta egun hartaz geroztik
izan zen
nire bizitza
bultzada lineal bat
beti-erortze-bat
inorantz ere ez.
Gorantz begiratzen dudanean,
beheko sakontasunaz ohartuta
akojonatu egiten naiz
eta orduan
zeharo ezgauza naiz
erorketa geldiarazteko
eta jarraitzen dut
gorantz begiratzen, erortzen...
Zer egon daiteke amaieran
kolpe itzel, homizida bat baino?
Orduan, non dago koxka?

Literatura zikinak
errealitatearen gaineko
ikuspegi zinikoa
islatzen du
eta horretxek ematen dio
bere zilegitasuna.

Azken batean,
den-dena da espresioa.

Gero, “intuizioak” daude
(esaterako, “lupanar”. Zer da hori?
Nork deitu du hona hitz hori?)

Geronen misterioaren
giltza gara.
Inork/ezerk ezin du
jazoera hori saihestu.
«C'est la vie».

Lanaren gatibutasunetik
egun batzuetarako sikiera
libratzen naizenean,
hitzak pilatu egiten zaizkit
eta kaxoia irauli baino
ez dut egin behar
berriz ere ni neu izateko.
Gutaz ahazteko bizi gara,
gure nahiaren kontra...

Gauari bukatzeko
falta zaizkion
orduetako hondarra gara
("orduen hondarra". Filologo galdua berriz ere
piztu da nigan
eta euskaldun bakoitzarengan
—izan bedi gure desesperazio
eta lotsarako—).
Nork saihes dezake bere patua, ordea?
Ezta Jainkoak ere.
Unibertsoa "da",
beste erremediorik ez duelako.
Hori ez diot nik,
izarrek baizik
(erreparatu, bestela, euren ñirñirari).
Baina itsuak gara,
diru gehiegi irabazten dugu
eta urrutiko lurrikarek baino
ez gaituzte ikaratzen.
Galdu egin gara.
Beste behin.
Patetikoak gara.
Odolean daramagu.
Gu, galtzaileok...

Begira, hor,
 “un niño de papá”
oholtza gainera igota,
 bere gitarratxoarekin,
 “rock gogorra” jotzen
 (hori jotzea baldin bada...).

Begira, “pijo” bat da,
eta pijo guztiak begira ditu
 oihuka, bere pijokeriak
 hipnotizatuta,
Narkisoa ibaiko uretan bezala.
Noiz-behinka, elkartasun-jaialdietan
 hartzen du parte
 zilborra zeinen (esku)zabala duen
 denok ohar gaitezen.

Petimetre horrek oka eragiten dit.
 Esku batekin Coca-Cola saltzen digu
 eta bestearekin Coca.

Zoaz Kontserbatoriora,
 lerdo amusikal hori,
 eta zure zilborraren lekuan
 jar ezazu kilo bat bonba trazadora.

Zure herriak eskertuko dizu eta
 (“¡y una mierda!”).

Hemen —eta han—, “eskerrak” esan baino lehen
 prest gaude
 liburua itxi
 eta mutis egiteko.

Ez dago besterik: har ezazu ala uztazu
 (erabaki azkar; ez izorratu luzez).
 Adiorik ez, Lagun.

Ordu bakan batzuk
geratzen dira
egunsentirako
eta hona hemen ni
hitz gorriz tindatu hauek
paper kazkar batean
izkiriitzen
beste egitekorik izango ez banu bezala!

Oi, ama!

Denok geratu ginen zahartuxeagoak
zu hil zinenean.

Espainiako Telebistako

Ja-kin-tsu-ak
bildu egin dira
zeremonial handiz.

Nik sei-zazpi asto irudikatu ditut,
mahai biribil baten inguruan
iji eta aja.

Gero, telebista piztu dut
eta neurria hartu diet
haiei
eta
haien jakituriari.

Ustekaberik ez.